

926/2022 Ebazpena, martxoaren 17koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez 2022an osasun-prestakuntza espezializatua amaitzen duten profesionalak kontratazio-zerrendetan sartzeko prozesua garatzen den.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Administrazio Kontseiluak 2011ko maiatzaren 9an hartutako Erabakiaren azken xedapenetako bigarrenaren hirugarren apartatuak (2011ko ekainaren 6ko EHAA 106. zk.), Osakidetzan aldi baterako kontratazio-zerrendak egin eta kudeatzekoak, Osakidetza Zuzendaritza Nagusiari ahalmena ematen dio erabaki hori garatzeko behar diren ebazpenak eta jarraibideak emateko.

Erabaki horren hamazazpigarren apartatuan, zerrendak etengabe zabalik izango dituzten kategoriak / lanpostu funtzionalak arautzen dira, baina ez da berariaz arautzen prestakuntza sanitario espezializatua amaitzen duten profesionalak nola sartuko diren zerrenda horietan. Aldiz, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Administrazio Kontseiluaren 2021eko uztailaren 21eko Erabakiaren seigarren xedapen gehigarrian, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan aldi baterako kontratazioko zerrendak egin eta kudeatzekoan, honako hau jasotzen da:

*"a) Fakultatibo Espezialista Medikoen edo Fakultatibo Teknikoen kategorietan izena emateko aukera duten osasun-zientzietako gradudun edo lizentziadunek, prestakuntza-programa osatuko badute, programa amaitzen den urteko apirilean aurkeztu ahal izango dute egoitzaldiaren aurreko urtean lortutako kalifikazioa eta egoitzaldia egiteko probaren deialdi nazionallean lortutako ordena-zenbakia egiaztatzeko agiria.
(...)*

b) Aurreko puntuan adierazitako izangaiak hurrenkera honen arabera sartuko dira zerrendetan, zerrendak urtero egiten den eguneratzean aldatzen diren arte: egoitzaldiaren aurreko urteko ebaluazioan lortutako kalifikazioa (berdinketarik izanez gero, egoitzaldia egiteko probaren deialdi nazionallean lortutako ordena-zenbakia hartuko da kontuan)".

Hala, zentzuzko eta komenigarritzat jotzen da neurri hori 2022an prestakuntza-programa amaituko duten Fakultatibo Espezialista Medikoei edo Fakultatibo Teknikoei ezartzea, sistema bidezkoagoa delako eta, gainera, aurten jarriko direlako indarrean kontratazio-zerrenda berriak.


Horregatik guztiagatik, eta aplikatzekoak diren gainerako lege-oinarriak aplikatuz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. – Fakultatibo Espezialista Medikoen edo Fakultatibo Teknikoen kategorietan izena eman dezaketen eta 2022an prestakuntza-programa amaituko duten osasun-zientzietako gradudunak edo lizentziadunak kontratazio-zerrendetan sartzeko, egoitzaldiaren aurreko urteko ebaluazioan lortutako kalifikazioaren arabera ezarriko da hurrenkera, eta berdinketarik izanez gero, egoitzaldia egiteko probaren deialdi nazionallean lortutako ordena-zenbakira joko da.

Bigarrena. – Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari; horretarako, hilabeteko epea egongo da, Ebazpena Osakidetzako web orrian argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legean eta Osakidetzaren estatutu sozialak ezartzeko azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko martxoaren 17a



Sin.: María Rosa Pérez Esquerdo
OSAKIDETZAKO ZUZENDARI NAGUSIA